



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

EMOZIOEN GARRANTZIA ETA LANKETA HAUR

HEZKUNTZAN

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Hernandez Fernandez, Mikel

ZUZENDARIA: León Hernández, Irati

2022-2023

LABURPENA

Hezkuntza tradizionalak ezagutza gehiago baloratu du emozioak baino, nahiz eta bi alderdiak beharrezkoak diren. Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusiak Haur Hezkuntzako etapan Hezkuntza Emozionalean formatzea eta sakontzea izan da. Horretarako, Hezkuntza Emozionalaren eta haurtzaroan emozioen garapenaren informazioa bildu da, lan etnografikoa bat eginez, non behaketa sistematikoa informazioa jasotzeko tresna izan da. Analisia kategoría-sistemaren bidez egin da, eta honako dimentsioak aztertu dira: Haurren emozioak lehenengo eta bigarren zikloan eta irakaslearen jarrera eta nire inpresioak haurren emozio desberdinen aurrean. Ondorioek garbi adierazten dute emozioak etapa honetan lantzeak duten garrantzia eta nola haurren testuingurua hauek azalertzeko orduan duten eragina.

HITZ GAKOAK

Hezkuntza Emozionala, Haur Hezkuntza, Adimen Emozionala, emozioak, behaketa, Etnografia

RESUMEN

La educación tradicional ha valorado más el conocimiento que las emociones, aunque ambos aspectos son necesarios. Los objetivos principales de este Trabajo Fin de Grado han sido la formación y profundización en la Educación Emocional en la etapa de Educación Infantil. Para ello, se ha recopilado información sobre la Educación Emocional y el desarrollo emocional en la infancia, realizando un trabajo etnográfico. Para ello, la observación sistemática ha sido la herramienta para la recogida de información. El análisis se ha realizado mediante el sistema de categorías y se han analizado las siguientes dimensiones: Las emociones de los niños en el primer y segundo ciclo y la actitud del profesor y mis impresiones ante las diferentes emociones de los niños. Las conclusiones indican la importancia de trabajar las emociones en esta etapa y cómo el contexto de los niños influye en su afloramiento.

PALABRAS CLAVE

Educación Emocional, Educación Infantil, Inteligencia Emocional, emociones, observación, Etnografía

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. JUSTIFIKAZIOA.....	5
3. MARKO TEORIKOA.....	6
3.1. Emozioak: definizioa, adimena eta hezkuntza.....	7
3.2. Emozioen garapena haurtzaroan	10
3.3. Hezkuntza emozioan eta Haur Hezkuntza.....	13
4. HELBURUAK	14
5. METODOA	15
5.1. Diseinua	15
5.2. Eskolaren eta auzoaren ezaugarriak	16
5.3. Partaideen ezaugarriak eta nire burua.....	19
5.4. Informazioa biltzeko tresnak eta prozedura	20
5.5. Informazioaren analisisa	20
6. EMAITZAK	22
7. ONDORIOAK.....	28
8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK.....	31
9. ERREFERENTZIAK	33
10. ERANSKINAK	37

1. SARRERA

Gradu Amaierako Lan honetan emozioen lanketarekin, Adimen Emozionalarekin eta Hezkuntza Emozionalarekin lotutako behaketa sistematikoa aurrera eraman da. Horretarako, Haur Hezkuntzako lehenengo eta bigarren zikloko haurrak testuinguru desberdinetan aztertu eta behatu dira. Hain zuzen ere, gauzatuko den ikerketa, kasu azterketa bat da, non metodo kualitatiboaren bitartez burutu da.

GrAL honetan, emozioen eta honen inguruko alderdien garrantzia eta ulerpena adierazi nahi da. Izan ere, hasierako hezkuntzaren funtsezko tresnak dira eta hauen kudeaketa egokia gure garapenerako beharrezkoak dira, beraz hauek sustatu eta lehenetsi behar dira. Hala nola, haurrek garapen emozionala eta soziala esperimendu dezaten, autonomoagoak izan daitezen eta bizikidetzan harmonikoaren esparruan egon daitezen. Lan honen helburua emozioen munduan sakonki dokumentatzea da, eta Hezkuntza Emozionalak ikasgelan duen garrantzia erakustea. Funtsean, eskolak, irakasleek eta familiak hezkuntza mota horren garapenean betetzen dituzten eginkizunei eta eraginari buruzko hausnarketa eta garrantzia azpimarratuz.

Hau kontuan hartuta, lan hau lau atal nagusitan banatzen da: marko teorikoa, metodoa, emaitzak eta ondorioak. Marko teorikoari erreparatuz, emozioen azalpena eta garrantzia adieraziko da, Adimen eta Hezkuntza Emozionalaren definizioak, eta eskolan emozioak kudeatzeko eta ulertzeko estrategiak azalduko dira. Azken hau, esan bezala Haur Hezkuntzako bi etapei arreta jarriz, non lehen urte hauek funtsezkoak diren etorkizuneko egoerei erreparatuz. Guzti hau, 2015ko, abenduaren 22an egindako Haur Hezkuntzako curriculumarekin lotu egingo da. Lanaren amaieran, erabilitako baliabide hauen erreferentziak adieraziko dira.

Ondoren metodoan, ikerketa burutu ahal izateko erabilitako baliabideak deskribatzen dira. Hala nola; informazioa jasotzeko erabili diren tresnak, testuinguru guztiaren ezaugarriak eta deskribapena, nire buruaren aipamena eta sistema kategoriala osatzen duen taula. Bukatzeko, modu sistematikoan behatutako informazioa Narrazio Etnografikoen bitartez adieraziko da. Hilabete hauetako prozesu osoaren ondorioekin eta hausnarketekin bukatzeko.

2. JUSTIFIKAZIOA

Jarraian garatuko den gaiaren aukeraketaren arrazoia, hainbat alderdi desberdinengatik izan da. Alde batetik, maila pertsonalean nahiko interesgarria eta beharrezkoa iruditzen zaidan gaia delako, eta, beste alde batetik, gure buruarengan duen eragina eta garrantzia dela eta. Izan ere, emozioak eragin handia dute gugan, onura asko eskaintzen dizkigutelako eta gure nortasuna eraldatzen dutelako. Honekin lotuta, gainontzekoekin garatzen ditugun harremanak eta inguratzen gaituen mundua ulertzeko dugun moduarekin eragina daukate.

Gure barneko eta kanpoko gatazka asko aldeztatik lan emozional ona izanez modu eraginkorrangoan konponduko ziren. Beraz, emozioekin lan egiteak arazo horiei modu desberdin eta egokiagoan aurre egitea eta kudeatzea eragingo du. Beste modu batean esanda, zenbat eta lehenago ikasi gure emozioak ezagutzen, erregulatzen eta adierazten, orduan eta erantzun hobea izango dugu gure bizitzan sor daitezkeen gatazken aurrean. Horregatik, esparru hori eskolan lantzea funtsezkoa da, baina hau sustatzeko batzuetan ez dira joerak aurrera eramaten. Batez ere, lehen eskola-etapetan, non emozioen garapen egokiak funtsezko zeregina betetzen duten haurren garapen integralerako.

Normalean emozioen lanketa eta kudeaketaren inguruko garrantzia aipatzen da. Izan ere, eta Haur Hezkuntzako etapari erreparatuz, azken honen curriculumean emozioekin lotutako hainbat atal bereizten dira. Hori dela eta, orain aipatutako etapa honetan bete beharreko oinarrizko kompetentziak adierazten dira, eta etorkizunean mundu guztiak kontrolatu beharko lituzke. Esaterako, bizitza pertsonalean zein profesionalean, norbera bere buruarekin hobeto sentitzeko eta hobeto ulertzeko.

Esan bezala, kontuan hartuta gaiarekiko daukadan interesa, gaia bera duen garrantzia eta ematen zaion inportantzia txikia aztertuta gai hau aukeratzea erabaki da. Beraz, Haur Hezkuntzako etapa osoan ikasgelan eta testuinguru desberdinetan ematen diren interakzioak aztertu eta jaso dira. Non, haurren emozioetara hurbildu ahal izatea bilatzen den, izan ere; emozio horiek ulertzeko, adierazteko, identifikatzeko eta ahalik eta naturaltasun eta erosotasun handienarekin kudeatzeko. Hau horrela izanik, etorkizunean egoera desberdinetan laguntzeko asmoarekin.

3. MARKO TEORIKOA

Historian zehar, emozioak presente egon dira, nahiz eta haien protagonismoa berdina ez izan. Carl Rogersen psikologia humanistak, emozioei arreta berezia eskaintzen die. Denboran zehar ekarpen filosofikoak ere iritsi dira, hala nola Aristoteles, Kant, Hume, Dewey, eta beste pentsalari askorenak, eta ekarpen zientifikoak ere. Hala nola, Lazarus (1991), Strongman (1991-1992), Goleman (1995), Csiksentmihalyi (1997) besteak beste. Ekarpen hauen ondorioz, emozioen terminoa birdefinitzea eta gai osoa egituratzea ekarri dute.

Orokorrean, hezkuntza tradizionalak ezagutza gehiago baloratu du emozioak baino, nahiz eta bi alderdiak beharrezkoak diren. Hezkuntzan, emozioak hezi behar dira eta horrek pertsonen garapen integrala aintzat hartzea esan nahi du. Hau da, gaitasun kognitiboak, fisikoak, linguistikoak, moralak, afektiboak eta emozionalak garatzea. Beraz, emozioak ere hezi eta landu egin behar dira, eta eskola horren parte da (López-Cassá, 2005).

Azken urteetan, emozioak eta haien ikaskuntza ikertu dira eta azken horiek ikasgelan nola lantzea ere (Teruel, 2014). Bizitzako lehen urteetatik haurrek emozioz beteriko giroan garatzen dira. Horrela, umea bere emozioak adierazten ikasiko du eta besteenak jasotzen. Baita ere hauei erantzuten, haien emozioak kontrolatzen saiatuz. Ikaskuntza hori egiteko moduak eta emozionalki garatzeko alderdiak, haren ongizatean eta bizi-kalitatean eragina izango dute (Heras et al., 2016).

Haurraren garapen emozionalean ekarpenak egiteko, egungo korrante zientifikoek eta teorikoek Haur Hezkuntzan gaitasun emozionalak indartzeko beharra azpimarratzen dute (Dobrin eta Kállay, 2013). Derrigorrezko hezkuntzak, gaitasun emozionalaren garapena sustatzea funtsezkotzat jotzen da, hainbat dimentsio edo trebetasunez osatutako eraikuntza konplexu gisa ulertuta.

Gure burua hobeto ulertzeko, emozioen munduan murgiltzea ezinbesteko eginkizuna da. Izan ere, pertsona baten egoera emozionala bere ingurunea hautemateko modua mugatzen duelako (Gallardo, 2009). Honekin jarraituz, Charland-en (2011) arabera, ingurunearekiko elkarreaginean, erregulazio emozionala onartzea funtsezko alderdia da. Hau hobeto ulertzeko, emozioak zer diren definitzea beharrezkoa da, izan ere, termino hau oraindik zehaztugabea izaten jarraitzen du. Esaterako, emozioen mundua inguratzen duten ikuspegiak anitzak dira, aztertu eta interpretatu diren alderdi desberdinak direla eta.

3.1. Emozioak: definizioa, adimena eta hezkuntza

Termino honekin zehatzagoak izateko, ikuspegi biologikotik, emozioak erantzun-eredu espezifiko eta mugatutzat jotzen dira, egoera edo objektu bat ongizaterako mehatxagarri gisa interpretatzeagatik (Deigh, 2010). Ikuspegi konstruktibistaren arabera, emozioa prozesu koordinatu batzuk gauzatzearen emaitza da. Halaber, portaera gidatzen duten aktibazioa, estimazioa, kontzientzia eta esperientzia emozionala dira (Fridja, 2008).

Emozioei buruzko hurbilketarik berrienetakoa harremanezkoa izan da. Besteak beste, seinaleak transmititzen dituen gizarte-fenomeno gisa definitzen dira, ingurunea interpretatzeko eta bertan dauden pertsonak ulertzeko balio eta erabiltzen direnak. Azken hauek, kulturaren, arau moralen eta testuinguruaren eragina dute (Mesquita, 2010).

Beste alde batetik, emozioak lehen mailakoetan eta bigarren mailakoetan bereizten dira. Izan ere, ezaugarrien, betetzen duten funtzioaren eta horiek agertzen diren garapen-etaparen arabera (Gómez eta Calleja, 2016). Lehen mailako emozioak (harridura, beldurra, poza, haserrea) bizitzako lehen urteetatik sortzen dira, eta ezaugarri bereizgarriak dituzte. Hau da, bakoitzak abiarazle espezifikoak eta prozesu kognitibo definitua ditu. Horrez gain, esperientzia (subjektiboak), hainbat egoerei aurre egiteko modu ezberdinetan eragina daukate. Bigarren mailako emozioak (inbidia, lotsa, errua), baita sozialak edo moralak bezala definitu daitezkeenak (Haidt, 2003), bi urte igaro ondoren agertzen dira, identitate pertsonalarekin batera. Baita, arau sozialen barnerapenean eta arau horien araberrako niaren ebaluazioarekin batera (García et al., 2010).

Beste egile batzuk adierazi bezala, haurren portaera, jaio eta geroko lehenengo asteetan ingurunera egokitzeko ekintzak ditu ezaugarri bezala. Ondoren, bertan dauden elementuekin elkarreraginean hasiko da. Lehenengo sei hilabeteetan haurrak bere oinarritzko emozioak adierazten hasiko da: poza, tristura, beldurra, haserrea, interesa, harridura, nazka. Geroago, bigarren mailako emozioak agertuko dira: enpatia, inbidia, lotsa, erruduntasuna, harrotasuna. Horiek agertzeko, kontzientzia eta auto-kontzientzia handiagoa lortu behar da. Azken horiek funtzio sozial garrantzitsua dute, beharrezkoak direlako norberaren egoera emozionalaz jabetzeko eta, aldi berean, elkarri eragiten diogun beste pertsona zer pentsatzen ari den sumatzeko (Muñoz, 2010).

Adimen emozionala XVIII. mendean sortu zen, giza burua hiru esparrutan banatzen zela defendatzen hasi zenean: kognizioa, motibazioa eta afektibitatea

(Bisquerra et al., 2015). Orokorrean, norberaren eta besteen emozioen identifikazioan, adierazpenean, erabileran, ulermenean eta erregulazioan oinarritutako trebetasun sozio emozionalak bereganatzean oinarritzen da (Cejudo eta López, 2017). Adimen Emozionala hedatzea ahalbidetzen duten trebetasun horiek pixkanaka bereganatzen dira pertsonaren garapen psikologikoan zehar.

Dueñas (2002), adimen emozionala gure ahalmenak menderatzeko meta-trebetasun erabakigarria direla adierazten du. Modu honetan, kontrol pertsonala, harremanen arrakasta eta lan-errendimendua lortuko da. Bestalde, adimen emozionala oinarritzko lau elementuk osatzen dute: alfabetizazioa, alkimia, arintasuna eta sakontasun emozionala.

Adimen Emozionalaren trebetasunak lehen haurtzaroan garatzen dira eta familiaren eta hezitzaileen rolak horretarako funtsezkoak dira. Hala nola, haurtzaroko erreferentziazko lehen eredu sozial emozionalak eta Hezkuntza Emozional egokia emateaz arduratzen direnak baitira (Mora et al., 2022). Termino hau, ikasleen ongizate psikologikoa sustatzen du, ingurunea ulertzen laguntzen du eta sortzen diren egoerei aurre egiteko gaitasunak eskaintzen ditu (Puertas et al., 2020).

Horregatik, lider emozionalen presentzia arrisku-egoerak saihesteko eta horietan esku hartzeko funtsezko alderdia da (Cejudo eta López, 2017). Era berean, Adimen Emozionalaren maila egokia eskuratzen duten ikasleek sentimenduak behar bezala kudeatzeko gaitasunak garatzen dituzte, hala nola antsietatea eta depresioa, bai eta autoestimua areagotzea ere (Puertas et al., 2020).

Termino hau Mayerrek eta Saloveyk 1997an defendatutako ereduarekin formalki aurkeztu dela aipatzekoa da (Bisquerra et al., 2015). Esaterako hurrengo adierazi zuten: adimen emozionala emozioa zehaztasunez hautemateko eta adierazteko trebetasuna da. Emozioa ulertzeko trebetasunaz eta ezagutza emozionalaz gain, besteak beste.

Horretarako, irakaslearen ezagutza eta prestakuntza oso garrantzitsua da. Hau da, eskolan adimen emozionalari buruzko hezkuntza-programak ezarri behar dira, jardungo duten irakasleak prestatu behar direlako (García, 2021). Baita ere, irakasleen adimen emozionalak ikasleen jokabide disruptiboen tratamenduan duen eragina nabarmentzekoa da (Buitrago et al., 2015).

Hezkuntza Emozionala hezkuntza-berrikuntza bat da, eta egungo hezkuntza formalean behar bezala arduratzen ez diren gizarte-premiei erantzun nahi die

(Bisquerra, 2003). Emozioen munduarekin lotutako gaitasun batzuk oso garrantzitsuak dira bizitzako alderdi guztietarako. Goleman (1998), geure sentimenduak eta besteen sentimenduak ezagutzeko, motibatze eta besteekin eta geure buruarekin ditugun harremanak behar bezala erabiltzeko gaitasuna bezala definitu zuen. Hala nola, Hezkuntza Emozionala hezkuntza-sistemaren barruan gaitasun emozionalak etengabe garatzeko estrategia da. Izan ere, gaitasun horiek indartzeko eta giza garapena bultzatzeko funtsezko elementu bezala. Etorkizunerako prestatuz eta ongizate pertsonala eta soziala handituz (Bisquerra, 2012).

Hezkuntza Emozionalari arreta eskaini behar zaio, eta lehenengo haurtzaroan hasi beharko litzateke lantzen, orduan baitago eraginkorra izateko aukera handiena (López-Cassá, 2011). Azken hau, gaitasun sozio emozionalak garatzeari dagokio, pertsonalki eta sozialki egokitzeko garrantzitsuak direnak (Garaigordobil, 2018). Bestalde, Bisquerrak (2010) hezkuntza emozionala hezkuntza-prozesu jarraitua eta iraunkorra dela adierazi zuen. Izan ere, garapen emozionala garapen kognitiboaren ezinbesteko osagarri gisa sustatzeko.

Alderdi hau eskolan lantzea eta garatzea garrantzitsua da, esan bezala batzuetan Hezkuntza Emozionalari beharrezko denbora ematen ez zaiolako. Beraz, ikasleek garapen harmonikoa eta integrala izan dezaten alderdi guztietan esku-hartu behar da. Azken hau garatzeko profesionalak eta prestakuntza behar da, eta hau sustatzea, esaterako; giro emozionala, zaintza eta laguntza fisikoa eta emozionala, praktika pedagogikoak eta abar (Schleicher, 2019). Esan genezake pertsona arduratsuagoak prestatzeko aukera ematen duela, bizitza ez delako bakarrik logikan oinarritzen. Gure mundu emozionalak ere gure erabakiak eta ekintzak motibatzen eta mugitzen ditu (Freshwater eta Sticklely, 2004).

Emozioak, funtsezko zeregina betetzen dute eta pertsonarentzat jaiotzetik beharrezkoak dira. Hala nola, nortasunaren eraikuntzan eta besteekiko elkarreraginean eragina daukate. Ondorioz, Hezkuntza Emozionala lantzea garrantzitsua da, izan ere, emozioak ingurunearekiko (familia, lagunak...) eta haurraren buruarekiko harreman guztietan agertzen dira. Esaterako, haurraren eboluzio-prozesu guztietan esku hartzen dute, adibidez: hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenean, gizarte-ezagutzan, garapen moralean, erabakiak hartzean (López-Cassá, 2007)... Bisquerraren (2003) arabera, Hezkuntza Emozionalaren helburu orokorrak eta funtsezkoak hauek dira:

- Norberaren emozioak hobeto ezagutzea.
- Besteen emozioak identifikatzea.

- Norberaren emozioak erregulatzeko trebetasuna garatzea.
- Emozio negatiboen ondorio kaltegarriak prebenitzea.
- Emozio positiboak sortzeko trebetasuna garatzea.
- Auto-motibatzeko trebetasuna garatzea.
- Bizitzaren aurrean jarrera positiboa izatea.
- Hauek jariatzen ikastea.

Esan bezala, hau lantzea lehentasuna da, bizi-erritmo berrien ondorioz, haurren premia emozionalak aldatzen ari dira. Halaber, ordenagailu-jokoekin edo telebistarekin ordezkutzen ari dira, beraz hutsune emozionalak eguneroko zailtasunei aurre egiteko gaitasunik gabe utziko ditu haur horiek (Vilora, 2005). Honen ondorioz, isolamendu, depresio, antsietate, inpulsibotasun, urduritasun... joera areagotzen dute, hau da, arazo emozionaletarako joera.

3.2. Emozioen garapena haurtzaroan

Palomera eta Yépezen arabera (2016), musika, literatura eta arte plastikoak bezalako hezkuntza-baliabideen bidez, haurren garapen emozionala, soziala eta sortzailea lagundu dezakegu. Honekin batera, irakurketa sozializatzeko funtsezko tresnatzat jotzen da, eta, aldi berean, ikasleen gaitasun emozionala eta soziala hobetzeko bitarteko eraginkorra da. Hala nola, hezkuntza-etapa guztietan, eta, bereziki, haur-hezkuntzako etapan.

Honekin lotuta, Brackett eta kideen (2011) arabera; helburua emozioak gizakiarenak direla ulertzea da, haurrak sentitzen duena adierazi ahal izatea eta hori kudeatzen jakitea eta enpatia sustatzea. Izan ere, emozioak kanpoko edo barruko gertaera bati erantzuteko sortzen dira normalean (Bisquerra, 2003). Ikasleen behar emozionalei ez erantzutea, errendimendu akademikoarekin, gaitasun intelektualarekin... harreman zuzena dauka (García, 2021). Escolar eta kideek (2017) azpimarratzen duten moduan, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapak funtsezkoak dira gaitasun emozionalak eskuratzeko. Besteak beste, etorkizunean eragina izango dutenak.

Jarraian txertatutako taula, 0 eta 6 urte bitarteko haurren garapen psikologikoan eta heldutasunean oinarrituta egin da. Bertan emozioen bilakaera azter daiteke eta, aldi berean, haurren garapen kognitiboa ikus daiteke. Esparru kognitiboan izandako aurrerapenak eta izandako emozioak behatu daitezke.

1 Taula: 0-6 urteko haurren garapen emozionala.

ETAPA	GARAPEN EMOZIONALA
Jaiotza	Haurraren eta bere zaintzailearen arteko lotura afektiboa dago. Plazera edo nahigabea erakuts dezake. Negarra erabiltzen dute arreta erakartzeko eta oinarrizko premiak adierazteko: deserosotasuna, gosea, mina.
1-2 Hilabete	Jaioberriaren irribarrea inolako estimulaziorik gabe agertzen da.
2-4 Hilabete	Iribarre soziala edo erreakzio positiboa agertzen da objektuen, egoeren eta, batez ere, zaintzailearen eta pertsona ezagunen aurrean.
3-7 Hilabete	Oinarrizko emozio batzuk agertzen dira: haserrea, harridura, tristura, poza eta amorrua.
7 Hilabete	Beldurraren adierazpenak eta ezezagunekiko beldurra agertzen dira. Baita, zaintzailetik banatzeko antsietatea agertzen da. Atxikimenduari zerikusia dauka.
8-12 Hilabete	Zaintzaileen emozioak, aurpegi-aldaketak, keinuak eta ahots-tonuak behatzeko eta bereizteko trebetasun handiagoa garatzen da.
12-24 Hilabete	Bigarren mailako emozioak agertzen dira (lotsa, inbidia), haurrak bere burua gainontzekoekin konparatuta desberdina ikusten duenean. Honetaz aparte, enpatia agertzen da. Baita besteengan haserre edo beste emozioak interpretatzea.
2-3 Urte	Bere jarduna interpretatzen duenean errua agertzen da, eta helburu bat lortzarekin lotutako harrotasuna. Horrez gain, "ez" hitza eta amorrualdiak erabiltzen hasten dira.

3-4 Urte	Emozio sozio-moralak gehiago garatzen dira: inbidia, errua eta harrotasuna. Hizkuntzarekin kontzientzia emozionala garatzen dute, eta lexiko emozionala erabiltzen hasten dira tristura, beldurra, haserrea... aipatzeko.
4-5 Urte	Norberaren eta besteen emozioak islatzeko eta ulertzeko gaitasuna agertzen da, eta kontzientzia handiago izateak, haien emozioen kontrola errazten du.
5-6 Urte	Gizarte-mundua eta emozioen konplexutasuna handitzen dira. Sentimendurik konplexuenak agertzen dira: apaltasuna, segurtasunik eza edo konfiantza.

Iturria: Muñoz, 2010.

Gurasoek jakin behar dute beharrezkoa dela haurrei arreta ematea eta emozioen esparruan heztea. Funtsean, Hezkuntza Emozionala eskolan bakarrik aplikatzen bada, ez du arrakastarik izango, izan ere, familia testuinguru afektiboan lehena da (Palou, 2004), bertan hasten baitira haurrak beren garapenean eragina izango duten loturak eta harremanak sortzen. Vygotskik (1979) adierazi zuenez, giroak eta bere antolaketak, bikoteekiko, helduekiko eta irakasleekiko harremanarekin batera, berebiziko garrantzia dute hasierako etapan ikasteko.

Aipatutakoaren ondorioz, gurasoek eta familiek beharrezko gaitasuna izan behar dute haurraren ongizatea eta Hezkuntza Emozionala bultzatzeko. Hau posible bihurtzeko, hainbat jokabide eta eginkizun ezberdin bete beharko dituzte (Palou, 2004):

- Hurrekin loturak eta harreman afektiboak sortzea.
- Hurrekin enpatikoak izatea eta haien eskaerak hautematen jakitea.
- Egokitzapena eta malgutasuna gerta daitezkeen egoera eta emozioen aurrean.
- Komunikazioa, hau da, hurrek beren beharrak ezagutzea eta gainerakoena errespetatzea.
- Forma kulturelei erantzungo dien zaintza-eredu bat transmititzen jakitea.

3.3. Hezkuntza emozioan eta Haur Hezkuntza

Euskal Autonomi Erkidegoan 2015ean indarrean jarri zen Haur Hezkuntzako curriculum dekretuan (237/2015D:16) adierazten den moduan, lehenengo zikloan, haurrek norberaren eta gainerako pertsonen sentimenduak, emozioak, oinarrizko beharrizanak eta interesak adierazten hasten dira. Baita ere, azken hauek identifikatzen eta erregulatzen ikasten dute eta horretarako laguntza onartzea funtsezkoa da. Beraz, haurren bizitzako lehen etapak emozionalki aprobetxatu behar dira. Izan ere, Haur Hezkuntzako etapa hastean, haurrek nahiko erraztasuna dute sentimenduen munduan murgiltzeko. Funtsean, esparru emozionalera helduak baino lotuago daudelako eta haien burua behatzea gutxiago kostatzen zaielako (Boix, 2007). Bestela, arazo emozionalak agertzeko arriskua egongo da. Golemanen arabera (2012), azken hauek eskolan konpondu eta landu daitezke, haurrei adimen emozionalaren oinarrizko printzipioak irakatsiz. Helburua giza trebetasunak eskuratzen laguntzea da, hala nola: autoezagutza, autokontrola, enpatia, entzuten jakitea eta besteekin lankidetzan aritzea. Izan ere, gatazkak modu zuzen eta baketsuan konpondu ahal izateko.

Honekin lotuta, jolasa beharrezko baliabide izan daiteke hauek lantzeko. Halaber, Malaguzzi (2001), Montessori (1987) eta Tonucci (2012), adierazi zuten moduan, jolasa jarduera aske eta natural gisa interpretatzen da eta haurraren garapen integrala bultzatzen du. Ondorioz, autonomia, erabakitze gaitasuna eta gatazkak konpontzeko aukera ematen duten testuinguruetan garatu eta sustatu behar da. Haurrentzat jolasa bera ez den beste helbururik ez duen jarduera da, non haien gaitasun emozionalak, fisikoak, kognitiboak eta sozialak frogatzen diren. Jolasak eta mugimenduak haurraren lehen etapetan egon behar dute. Izan ere, bizitzako lehen zikloetan metatutako esperientziak instintu- eta emozio-erregistroak sortzen dira (Soler et al., 2016). Gorputz-adierazpena tresna gisa erabiltzeak hezitzaileari zenbait gaitasun garatzeko aukera ematen dio, hala nola: gorputz-hizkuntzaren bidezko sentimenduak eta emozioak. Beraz, azken hori pertsonaren garapen fisiko, intelektual eta afektibo-emozionalean laguntzen duen prestakuntza-tresna da (Vicente et al., 2010).

Honetaz bereiz eta Curriculum dekretuan adierazten denarekin lotzen, hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentziaren bitartez, sentimenduak eta emozioak adierazi daitezke eta bizipenak izan ahala, haurrek haien burua gero eta gehiago ezagutuko dute. Izan ere, ahozko hizkuntza ulertzean eta hau adierazteko urratsak ematean, haurrak beharrizanak eta emozioak komunikatzeko gai da. Hala nola, izandako bizipenak gogoratzeko eta norberaren portaera erregulatzeko. Bestalde kompetentzia motorraren bitartez, haurra espazioaz jabetzen, kanpo-munduan

adierazteko aukera izango du, esaterako; gorputz-adierazpenak erabiliz. Horretarako, keinuak, aurpegierak, mugimenduak, gorputz-jarrerak, ukimena eta antzeko baliabideak erabiltzen dira. Baliabide hauen medio, ideiak eta emozioak adierazten dira, egokitasunez interpretatzen dira eta gainerako pertsonen adierazpenak balioesten ditu.

Bestalde eduki komunen arabera, Haur Hezkuntzako bi zikloetan gorputza eta emozioak auto-erregulatzea funtsezkoa dela azpimarratzen da. Horretarako, askotariko komunikazio-estrategiak erabili behar dira (hitzezkoak, gorputzaren erabilera, musika, etab.) bere beharrianak, emozioak, bizipenak, sentsazioak eta gogoak adierazteko. Bigarren zikloan, aipatutakoaz aparte, arte-hizkuntza baliabide aproposa da. Funtsean, honen bitartez, haurrek errealitatearen inguruan duten ezagutza adierazten dute eta haien emozioak eta sentimenduak adierazten dituzte. Esaterako, beraientzat berriak diren abileziak eta trebetasunak eskuratzen dituzte, sormena lantzen duten bitartean. Modu honetan, Bisquerrak eta Pérez (2007) gaitasun emozionalak eskuratzeak pertsonen arteko harreman sozialak erraztuko dituela adierazi dute. Gatazkak konpontzerako orduan laguntzeaz gain, osasun fisiko eta mental egokia eta errendimendu akademikoa hobetzea sustatzen du. Izan ere, Greco (2010), Oros (2011) eta Fredrickson (2013) emozioen analisisien ikerlanek azken hau erakusten dute.

Baina, kontuan izan behar da, haur bakoitzak garapen emozional desberdina izango duela, bere ingurune sozialak, familiarak, garapen psikologikoak eta abarrek sustatutako esperientzien arabera izango delako (Guedes eta Álvaro, 2010). Bestalde, irakasleek egoera egokia dutela gau hau lantzeko azpimarratu behar da. Horrela, irakaslearen zeregina ikasleen artean segurtasuna eta konfiantza emango duen komunikazio- eta afektu-giroa sortzea da (Domingas et al., 2017).

4. HELBURUAK

Gradu Amaierako Lan honek, Haur Hezkuntzako etapan Hezkuntza Emozionalean sakontzeko grina du. Azken hau burutzeko, Praktikaldia baliatu da, non ikastetxe batean gertatu diren egora ezberdinak aztertzeko aukera egon da. Esaterako: haurren arteko interakzioak klasean, patioan, jantokian, zikloko proiektuetan, familiarekin... Horrela haur zein helduak zentroko dinamika eta testuinguru ezberdinetan behatzeko aukera egon da, egoera hauetan nola moldatzen diren eta aurre egiten duten aztertzeko. Maila profesionalean eta pertsonalean egoera desberdinen aurrean modu zuzenean jarduteko.

Lan honen helburu orokorra beraz, Hezkuntza Emozionalean formatzea izan da; etorkizuneko hezitzaile bezala alderdi honi dagokionez, haurren etapa zein prozesuak hobeto ezagutzeko. Horretarako lau azpi helburu garatu dira:

(1) Haurren emozioen garapena adin desberdinetan ezagutzea, behaketa eta erregistro baten bitartez, azken hauen jarrera ulertzeko eta bideratzeko. (2) Behaketaren bidez, haurrek emozioak egoera zehatzetan nola azalertzen dituzten behatzea. (3) Eguneroko behaketa aktiboaren bitartez, emozioak kudeatzeko modu anitzak ezagutzea, maila profesionalean eta pertsonalean. (4) Behaketa eta azterketa sistematikoaren bitartez, nire burua izandako inpresioak eta erantzunak haurren emozioen aurrean identifikatu.

5. METODOA

5.1. Diseinua

Zerbitzuaren ardatz nagusia emozioen gaineko adierazpena eta kontzientzia dira. Gauzatutako ikerketa, kasu azterketa bat da, hain zuzen ere, Haur Hezkuntzako etapan metodo kualitatiboaren bitartez aurrera eraman dena. Zenbakizkoak ez diren datuak biltzeko behaketa-metodo zientifikoa da, hau da, honelako teknikak erabiltzen dira: elkarriketak, talde edo behaketa-teknikak.... Lanaren helburuak kontuan hartuta, eta ikerketan ezarritako ezaugarriei egokituz, estrategia metodologiko bezala eta datuen bilketa aurrera eramateko, Narrazio Etnografikoak eta behaketa bidezko metodologia erabili dira.

Behaketa aztertu nahi duguna aukeratzen jakitea da. Beraz, lehenik eta behin, zer den behatu nahi dena aldeztu behar da, kasu honetan Haur Hezkuntzako emozioak. Hala nola, behaketa zientifikoak portaera deskribatzeko gaitasuna du, testuinguru teoriko batean behar bezala identifikatutako jokabideei, gertaerei edo egoerei buruzko datu egokiak eta fidagarriak lortuko dituelako (Berrocal et al., 2023).

Aipatutakoa kontuan hartuta, teknika zientifiko gisa datuak biltzea planteatu da. Horrek formulatutako ikerketa-helburu baterako balio du, paradigma kuantitatiboaren barruan kokatzen den ikuspegi epistemologiko bati erantzuten dio. Metodologia honetan, behatzaileak bere aurre ikusmoldeetatik aldendu behar du, eta behatutako gertakaria neutraltasun-posiziotik aztertu behar du. Horrela, ikerketa-prozesu sistematiko bat sortzen da, eta azterketa eskuragarriagoa egiten da. Funtsezko helburua baliozko dimentsioak eta fidagarriak eskuratzea izanda (González et al., 1990).

Esan bezala, behaketaren bitartez lortutako informazioa etnografien bidez jasoko da. Kontakizun etnografiko digitalak subjektua behatzeko eta bere ekintzei esanahiak emateko balio du. Horrela, mundu-ikuskera eraikitzeke erabiltzen diren gizarte- eta kultura-prozesuetako ezagutzak baloratzen dira (Londoño, 2012). Kontakizun etnografiko digitalaren erabilerak, narrazioa errealitatea aztertzeke modu gisa aldarrikatzen du. Mundua eta gizakiak ulertzea bilatzen du, esperientzia praktikoa eta hausnarketa subjektiboarekin zerikusia duten jarduera gisa integratzen.

Etnografoa errealitatea esploratzeko ezagutza moduak zabaltzen dituen bitartekaria da (Pujadas, 1992). Gainera, ezagutzaren zati bat erregistro idatziekin egiten da, subjektuek errealitateaz eta beren existentziaz duten ikuspegi subjektiboa islatzen dutenak (Maldonado eta Fonseca, 2011). Atkinson-en eta Hammersley-ren arabera (1994), praktika etnografikoak bost ezaugarri ditu: a) fenomeno sozial zehatz baten izaeraren esplorazioan azpimarratzea b) egituratu gabeko datuekin lan egitea, bildu eta kategorizatuak c) kasu gutxi batzuk edo bakar bat sakon ikertzen ditu d) datuak aztertzen ditu gero giza jardunen esanahiak eta funtzioak interpretatzeko e) analisi estatistikoa interpretaziorako lagungarri da.

Bestalde, Spindlerrek eta Spindlerrek (1992) iradokitzen dute beharrezkoa dela in situ behaketa luze eta errepikakorra egitea eta hainbat tresna erabiltzea datuak jasotzeko. Etnografoaren presentzia, parte-hartzaileekiko eta tokiarekiko interakzio pertsonala eta soziala aitortu eta deskribatu egin behar dira, bere kontakizunak aurkezten dituen modu narratiboaren bidez.

5.2. Eskolaren eta auzoaren ezaugarriak

Azterketa eta esperientzia hau, Inmaculada Concepción Ikastetxean burutu da. Eskola kristaua eta kontzertatua da eta 0-16 urte bitarteko irakaskuntza (D ereduan) eskaintzen du. Hau da, Haur Hezkuntzako bi zikloak, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza eskaintzen dira. Zentroa, Abetxuko auzoan kokatzen da, Arabako hiriburuaren kanpoaldean dagoena, Gasteizko udalerriaren iparraldean. Halaber, Zadorra ibaiak bereizten du hiritik eta auzoa Arabako industrializazioaren azelerazioaren testuinguruan sortu zen. Jatorrizko herrietako krisitik ihes egiten zuen biztanleria etorkina hartzeko neurri gisa sortu zen. Gaur egun, familia gazte askok osatutako langile- auzoa da, 3.000 biztanle inguru dituen. Antzina, zerbitzu eta azpiegitura faltak kontuan hartuta, auzoan auto-antolaketa bat eman zen, azken horri aurre egiteko. Azken urteetan, egoera hori hobetzen joan da, eta medikua, ikastola, kiroldegia, garraio

publikoa, zentro zibikoa, egoitza... dituzte. Auzo lasaia eta naturaz inguratuta dago, Zadorraz gain Gasteizko Gerriko Berdeak inguratzen du.

Inmaculada Concepción ikastetxea, bere heziketa pertsonaren eta munduaren ikuskera kristauan oinarritzen duen zentroa da. Eliza Katolikoaren eginkizun ebanjelizatzailean parte hartzen, Jaungoikoaren Hitzaren, bizi testigantza eta praktika erlijiosoaren bidez. Esaterako, Jesukristoren iragarpena oinarritzko xede da, honetarako, balio ebanjelikoak ikasleen bizitzan presente egoten dira. Hau da, bizitzaren zentzu kristauaren bitartez, ikasleen gizarte integrazioan laguntzen da. Izan ere, familiagiro batean hainbat hezkuntza-jarrera sustatzen dituzte: gozotasuna, ulermena, errespetua, erantzukizunak eta lanarekiko maitasuna.

Zentroak hainbat zerbitzu eta instalazio eskaintzen ditu. Hala nola, jantoki-zerbitzua, goizeko klasea eta eskolaz kanpoko ekintzak burutzen dituzte. Horrez gain, polikiroldegia, hainbat patio (horietako bi estalita), psikomotrizitate gela, sentimen anitzeko gela, liburutegia eta espazio natural berde handia daukate; banku, baratz, oilo eta abarrekin.

Lehenengo zikloari erreparatuz, gaur egungo egoera kontuan hartuta, urtero haur gutxiago jaiotzen dira. Beraz, aurrean, lehenengo zikloa antolatzean talde bakarra sortu da. Hain zuzen ere, urte bateko eta bi urteko haurrak klase berdinean elkartuz, 8 hurrek osatutako ikasgela bat sortuz: urte bateko 3 eta bi urteko 5 haur. Jatorrian klase bat zegoen adin bakoitzerako, nahiz eta aretoa eta beste espazio batzuk partekatzen zituzten. Beraz, orain espazio gehiago dituzte, nahiz eta hainbeste hurrekin harremanetan ez jarri.

Aipatutako zikloa bigarren solairuan kokatzen da eta espazioaren antolamenduari erreparatuz, areto handi bat dago klasez inguratuta (1 eranskina). Azken honen ezkerrean kokatzen diren hiru gela distribuzioa antzekoa da. Nahiz eta bakoitzean, baliabide eta helburu desberdinak bilatzen diren. Lehenengo gela hainbat zonalde bereizi daitezke, hala nola; sukaldea, ispilua (x2), koltxonetak, sofa, armairua jolas desberdinekin, kaxak objektuekin, komuna eta sehaskak eta objektu gehiago dituen gela bat. Bigarren gela, hainbat objektu eta gune ezberdin topatzen dira. Adibidez: sukaldea, ohea, lurzoru biguna, paretaren testura desberdinekin, komuna...

Hirugarren gela, komuna eta zona ezberdinak kokatzen dira: sukaldea, ispilua, armairua musika tresna ezberdinekin, arbela, mahai txiki bat puzzleekin, bankuak L forman paretan jarrita garraibide ezberdinekin eta mahaiak eta aulkiak. Azken hauetan artearekin eta testurekin lotutako hainbat jardura burutzen dira. Adibidez, objektu

desberdinekin margotzea (eskuak, pintura, pintzela...), botiletan objektu desberdinak sartzea (garbantzua, papera, makarroiak, orriak...), material desberdinak manipulatzeko... Ondoren, haur bakoitzak bere apalean egindako lanak gordetzen ditu. Honekin jarraituz, aretoan hainbat eremu behatu daitezke; mahaia hamaiketako burutzeko, egurrezko estruktura, kotxe handiak dauden lekua, puzzleak paretan, 3 koltxoneta eta hau inguratuz ohe tolesgarriak daude. Azken horietan, apalak daude, haurren eskura ez dauden objektuak gordetzeko: puxikak, botilak pilotekin, uztaiak, ipuinak... Honetaz aparte, psikomotrizitate klasea, gela multisentsoriala, aterpea eta ikastetxeko berdeguneak erabiltzen dira (2. eranskina). Horrela, astean zehar haurrek espazio desberdinak esperimentatu eta ezagutu ditzakete.

Orokorrean objektu eta jostailu asko topatu daitezke, hain zuzen, bakoitza kolore, tamaina, egitura eta material ezberdinez osatuta dago. Gomazko, metalezko, egurrezko, ilezko eta plastikozko objektuak aurkitu daitezke. Horietako bakoitzak funtzio eta erabilgarritasun desberdina dauka haurarentzat. Klaseko objektuak eta klasearen banaketa noizean behin aldatzen dira, haurrek gauza ezberdinekin proba eta esperimentatu dezaten, eta beti gauza berberekin egon ez daitezen. Hori guztia hainbat trebetasun garatzeko helburuarekin egiten da. Horretarako, biltegian gordeta dauden jostailuak eta objektuak aldatzen dira. Adibidez aurkitu daitezke: sukalderako materialak, zurezko blokeak, ibilgailuak, hainbat tamainatako pilotak, kuxinak, pelutxeak, ipuinak, musika-tresnak, puzzleak, telefonoak...

Haur-hezkuntzako bigarren zikloa lehen solairuan kokatzen da, eta klase bat dago adin bakoitzerako. Hau da, hiru, lau eta bost urteko gela bakarra daude, eta hiru klaseen antolaketa nahiko antzekoa da. Azken hauek txoko desberdinetan antolatuta daude (sukaldea, mahaiak, apalak haurren lanekin, arbela, bloke-logikoak...), baina adinaren arabera, bertan topatzen diren baliabideak eta materialak konplexutasun maila handiagoa daukate. Hiru klaseetan, haurrak hiru talde anitzetan antolatzen dituzte: tximeletak, erleak eta txoriak. Azken hauek, kurtsoan zehar aldatzen dira, haurrek ikaskide guztiekin harremantzeko. Talde hauek, klasean lana egiten denean erabiltzen dira, adibidez: marrazki bat, plastilina, fitxak, jolasak... honetarako haur bakoitza bere txokora joaten da eta mahaian eta aulkian esertzen da gainontzekoekin lanak burutzeko. Ikasturte honetan, Covid egoeraren aurrerapena dela eta, hiru klaseetan zehar posibilitate eta jarduera gehiago izateko aukera egon da. Ondorioz, kurtsoan zehar zikloko proiektuak aurrera eramanez, adin eta gaitasun desberdineko haurrak taldeka bilduz lan egiteko. Esaterako, saio desberdinak antolatzen dira asteazken eta ostiraletan, non esan bezala hiru adin desberdinak nahasten dira. Izan ere, behatutako

proiektuak eta jarduerak hurrengoak izan dira: janari osasungarria, antzerkia, gurasoen proiektuak eta kirolak.

5.3. Partaideen ezaugarriak eta nire burua

Azterketa Haur Hezkuntzako bi zikloetako hainbat ikasgeletan aurrera eraman da. Non adin bakoitzeko klase bakarra dagoen, izan ere bi, hiru, lau eta bost urteko klaseen haur talde desberdinak aztertu dira. Modu orokorrean, 50 haurren emozioak aztertu, behatu eta haien portaera interpretatu dira. Zehazki, praktikak egiten diren bitartean, Haur Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloan. Lehen aipatu bezala, lehenengo zikloan 8 haur topatzen dira. Haur Hezkuntzako bigarren zikloan 43 haur daude: 13 haur 3 urteko klasean eta 15 haur 4 eta 5 urteko klaseetan.

Haurren kultura-aniztasunari dagokionez, ez da topatzen aniztasun handirik. Nahiz eta, familia batzuk etorkinak izan, haur gehienak hemen jaiotakoak dira. Beraz, eta orokorrean, haur guztiek kultura bera, honen arauak eta hizkuntza partekatzen dute. Haur bakoitzaren familia-egoera eta ingurunea desberdinak dira, eta, horren ondorioz, ume bakoitzak modu diferentean adierazten ditu emozioak egoera zehatzetan. Gaitasun kognitiboak, afektiboak, sozialak eta motorrak kontuan hartuta, adinarekin eta mailarekin aldatzen dira. Hau da, haur zaharrenek garapen eta kudeaketa hobea dute adin txikiagokoak baino. Izan ere, denbora eta baliabide gehiago izan dituzte horretarako. Gaitasun desberdinak dituzten haurrei dagokienez, oraindik mintzamina garatu ez duen haur autista bat aurkitzen dugu. Azken honek, bere emozioak eta beharrak islatzen ditu, zeinu-mintzairaren, txartelen eta soinuei bidez.

Irakasleei dagokienez, gela bakoitzean irakasle bakarra dago, 1-2 urteko klasean izan ezik, bi irakasle topatzen direlako. Orokorrean, irakaslearen estiloa eta rolari erreparatuz, alderdi guztietan hurbileko pertsonak direla aipatu daiteke (haurrekin, familiarekin eta beste irakasle batzuekin). Komunikazioaren bitartez, hezkuntza prozesu osoan eta hezkuntza prozesuan parte hartzen duten pertsonekin, harreman egokia eta giro aproposa lortzen saiatzen dira. Izan ere, haurrari eszenatoki ezin hobea eskaintzeko, ingurunearekiko elkarreraginen bidez aurrera egin dezan. Halaber, egunerokotasunean eta honetan ematen diren jardueretan bakoitzak bere estilo propioa dauka, nahiz eta antzekotasunak ematen diren arren.

Denbora honetan izandako rola irakaslearena eta aztertzailearena izan da, zentroko jarduera eta zeregin desberdinetan parte-hartuz. Hain zuzen ere, 2 hilabete hauetan, hezitzailearen lanbidera hurbilketa sakonago bat egiteko behaketa egiteaz aparte, irakaslearen zereginetan modu aktiboan parte-hartu (adibidez: klaseak

prestatzea, familiekin hitz egitea, jantokian laguntzea, ariketa desberdinak aurrera eramatea, haurren beharrak asetzea, proiektuak aurrera eramatea, ebaluazioak...) da. Orokorrean, pazientea eta behatzailea naiz, eta ikusi dudako informazioa ondo aztertzen saiatu naiz, eta zentroko pertsonak irakatsi didate. Bestalde, saiatu naiz aktibo egoten eta giro lasaia sortzen haurrekin eta haiekin egiten genituen jardueretan. Ez zait zaila egin harreman ona sortzea ikastetxeko haur eta irakasleekin, eta hori ere ikastetxeko helduen portaerari esker izan da.

5.4. Informazioa biltzeko tresnak eta prozedura

Informazioa biltzeko eta erregistratzeko, aipatu bezala unibertsitateko ikaslearen Narrazio Etnografikoak erabili dira. Hain zuzen ere, egunean zehar inpresioak eta gertaerak behatzen eta erregistratzen dituztenak. Azken horiek, zentroaren testuinguru desberdinetan ematen diren egoera zehatzak dira. Esaterako, haurren arteko elkarreraginak espazio ezberdinetan: patioan, jantokian, psikomotrizitate klasean, korridoreetan... Era berean, egoera desberdinak behatu dira: ziklo-proiektuak, antzerkiak, dinamikak familiekin... Non, bertan ematen diren interakzioen eta gertaeren ondorioz, emozioak azaleratzen dira. Behaketak, 9 aste jarraietan zehar burutu dira, horrek denboran zehar aldaketak eta aurrerapenak modu argiagoan ikusteko aukera eman du.

Halaber, eguna hiru zati ezberdinetan egituratzen da. Goizean 4 orduz, espazioa 1 eta 2 urteko haurren ikasgelan partekatzen zen. Eguerdian, ordubete ematen zen jantokian bigarren zikloko haurrekin. Azkenik arratsaldean, bigarren zikloko haurrekin 2 ordu igarotzen ziren. Azken ziklo honetan, gehienbat 3 urteko klasean parte hartu eta lagundu da. Horrez gain, ikastetxeko beste irakasle eta langile batzuekin interakzioak eta elkarrizketak eman dira. Horren ondorioz, familia desberdinen testuingurua eta egoera hobeto ezagutu dira, eta horrek haurrek egoera desberdinetan duten portaera edo erreakzioa hobeto ulertzea eragiten du.

5.5. Informazioaren analisia

Orain aipatu eta azaldu bezala behaketen erregistroa aurrera eramateko Narrazio Etnografikoak erabili dira. Hauek emaitzetan irudikatuta agertuko dira, honen ondorengo interpretazioa eta ondorioak ateratzeko. Horretarako hauek kodifikatuta agertuko dira, hau da, azken hauen iniziala (N.E.) eta data (eguna/hilabetea/urtea) agertuko dira. Honetaz aparte, haur eta hezitzaile bakoitzari lurralde bateko izena atxiki zaio. Hauen bitartez, informazioa interpretatzea ahalbidetu du.

Emozio eta portaerei buruz behatutako eta interpretatutako informazioa antolatzeko, edukiaren analisia erraztu duen kategoria-sistema erabili da. Azken hau, analisi-tresna bezala erabili da eta dimentsioen eta kategorien antolaketa hierarkizatua egin da. Hau da, maila desberdinetako gaiak elkarri lotuta daude, irakasleen eta haurren portaera tartean dela. Informazioaren analisirako sistema kategoriala erabiltzeak, diskurtsoa antolatzea eta informazioa modu zentzudun eta argi batean egituratzea ahalbidetzen du. Honen bitartez, edukiak interpretatzeko tresnak sortzen dira, lanaren helburuei erantzuten dien sistema bat eraikitzen (Flick, 2004).

Edukiaren analitik datorren informazioa antolatzen laguntzen duen kategoria-sistema, lau dimentsio handitan egituratuta dago, eta horiek ematen diote zentzua emaitzen atalaren antolaketari. Jarraian dimentsio bakoitzeko deskribapena eta ezaugarriak adieraziko dira.

Lehen dimentsioa haurren emozioak lehenengo zikloan da. Haurrek nola hasten diren egoera desberdinen aurrean haien emozioak adierazten aztertzen da. Oinarrizko emozioak agertuz eta beste pertsonengan emozio desberdinak identifikatuz. Honetan bi kategoria topatzen dira. Batetik, lehen mailako emozioak eta honen baitan: poza, haserrea, nazka eta beldurra. Bestalde, bigarren mailako emozioak eta hauen barruan: harrotasuna, lotsa eta errua.

Bigarren dimentsioan, komunikazioari eta auto-kontzientziari esker emozioak interpretatzen eta adierazten aurrera egin dela ikusten da. Nola hasten diren haurrak identifikatzen eta hobeto ulertzen. Aldi berean, horiei aurre egiteko gai izaten hasten dira. Honetan, bi kategoria bereizi dira: lehenengo eta bigarren mailako emozioak. Lehengoaren azpi-kategoriei erreparatuz: poza, tristura, haserrea eta beldurra topatzen ditugu. Bigarrengoan aldiz: lotsa, inbidia eta errua.

Hirugarren dimentsioan, hezitzaileak hartzen duen rola haurrek emozio desberdinak manifestatzen dutenean behatzen da. Hau da, egoeraren eta umearen erreakzioaren arabera erakusten duen jarrera eta aurrera eramaten duen modua. Honen barnean hiru kategoria aurkitzen dira: irakaslearen esku-hartze pasiboa eta aktiboa, eta erabilitako baliabide didaktikoak.

Laugarren dimentsioan, nik ikasle bezala aurreko dimentsioetan behatutako eta izango inpresioak erakusten dira. Honetaz aparte, ateratako hausnarketa eta nire erreakzio modua egongo balitz adierazten dira.

2 TAULA: EMOZIOEI BURUZKO SISTEMA KATEGORIALA

Dimentsioak			Kategoriak	Azpi Kategoriak
Haurren zikloan	emozioak	lehenengo	Lehenengo mailako emozioak	Poza
				Haserrea
				Nazka
				Beldurra
			Bigarren mailako emozioak	Harrotasuna
				Lotsa
				Errua
Haurren zikloan	emozioak	lehenengo	Lehenengo mailako emozioak	Poza
				Tristura
				Haserrea
				Beldurra
			Bigarren mailako emozioak	Lotsa
				Inbidia
				Errua
Irakaslearen emozio desberdinen aurrean	jarrera	haurren	Irakaslearen esku-hartze pasiboa	
			Irakaslearen esku-hartze aktiboa	
			Erabilitako baliabide didaktikoak	
Nire inpresioak haurren emozio desberdinen aurrean				

6. EMAITZAK

Narrazio Etnografien bitartez informazioa jaso eta azken hau kategorizatzen hainbat dimentsiotan sailkatu eta antolatu ondoren, lortutako emaitzak hurrengoak dira.

6.1 Haurren emozioak lehenengo zikloan

6.1.1 Lehenengo mailako emozioak

Etapa honetan lehenengo mailako emozioak oso presente daude; haurrek ematen diren egoera desberdinetan lehenengo emozioak esperimentatzen hasten dira. Hala

nola, behatutako nagusienak edo gehien agertu direnak: poza, haserrea, nazka eta beldurra izan dira. Nahiz eta gainontzeko emozioak ere agertu diren. **Poza** askotan ikusi den emozioa izan da, haurrek ekintzak egiterakoan edo beraien artean elkarerraginean agertu den sentsazio atsegina izan da. Hau, umore onarekin, keinuekin eta irribarrearekin irudikatu da.

Nigeria, hirugarren gelara margotzera joango garela esaterakoan, irribarre egiten duen bitartean azken honetara korrika egiten bertaratzen da. (N.E. 2023/01/31).

Irlanda barre egin eta irribarre egiten dizu, bere totelak eta seinaleak ulertu dituzula konturatzen denean. (N.E. 2023/03/17).

Haserrea sarritan agertu den emozioa izan da, bidegabeak iruditutako egoerak defendatzeko eta horiei aurre egiteko erabili dena. Haurrek, haserrea zerbait gertatu dela esateko erabili dute. Izan ere, batzuetan sentimendu honi modu oldarkorrean erantzun diote.

Errusiak Georgiari kotxea hartzen dio, azken hau haserretzen da eta eskuarekin aurpegian jotzen dio. (N.E. 2023/02/02).

Jan baino lehen klaseko telebistan hainbat abesti jarri dira haurrek eskatzen zutelako eta haiek dantzatzeko. Janaria klasera igotzean telebista itzali eta irakasleak jantokira sartzeko eskatzen du. Nigeria, haserretzen da beste abesti bat nahi duelako eta lurrera aztalka eginez botatzen da. (N.E. 2023/02/02).

Nazka presente dagoen emozioa da, automatikoki zerbaitekiko edo norbaitekiko desatsegina sortzearen ondorioz agertu da. Hori dela eta, emozio honek sortutako sentsaziotik urrunduz egin dira.

Finlandiak, Cameruni ahotik jariatuz duen mandarina eskuekin hartu duela konturatzen da. Azken honi oihukatzen dio: ¡que asco Camerun! eta mahaitik urruntzen den bitartean mandarina lurrera botatzen du. Aldi berean eskua garbitzeko papera eskatzen du. (N.E. 2023/01/31).

Haurtzaroan **beldurra** ohiko emozioa da, eta haurrak arriskua sentitu dutenean agertu da, benetako mehatxu baten ondorioz edo ez. Hau da, nahiz eta haiei arriskuan daudela iruditu (inguruarekiko perspektibarengatik), errealitatean ez dago arriskurik. Portaera normala da, eta lehen urtean, orokorrean ezezagunarekikoaren ondorioz sortu da.

Txile-k, sartu dela ikusterakoan atearen atzean ezkutatu da eta negar egiten hasi da. Buruarekin ezetz egiten eta oihukatzen duen bitartean. (N.E. 2023/03/08).

Georgia, txirristaren eskailerak igotzerakoan atzerantz erortzeko gertu egon da eta susto handia hartu du. Aurpegia aldatu eta besoetan hartzea eskatzen du. Saio osoan ez da berriro txirristara hurbildu. (N.E. 2023/03/10).

6.1.2 Bigarren mailako emozioak

Nahiz eta etapa honetan lehenengo mailako emozioak ageriago dauden, pixkanaka eta kontzientzia hartzen duten bitartean, bigarren mailako emozioak presentzia hartzen dute. Izan ere, harrotasuna, lotsa eta errua gehien errepikatu direnak izan dira. **Harrotasuna** presente egon den emozioa izan da, konnotazio positiboarekin azaleratu dena. Ekintza pertsonal batean edo besteekin emaitza positiboa lortu ondoren sortu da.

Brasil, Finlandia eta Errusia jolasean ari dira uztaiak hodian sartzen. Baten batek uztaiak sartzen duen bakoitzean beste biak txaloka hasten dira, lortu duenak harrotasunez begiratzen dien bitartean. (N.E. 2023/03/13).

Umeengan **lotsa** sentitzea arrazoi askorengatik sortu da, adibidez: konfiantza faltagatik, beldurrarengatik... eraginda. Norberak besteen aurrean izandako zaugarritasun-sentimendua bezala irudikatu da.

Osaba bere bila etortzerakoan psikomotrizitate klaseetan egindako jauzi guztiak kontatzeko esan diogu Errusiak 4 helduen begirada nabaritzerakoan, ezer esan gabe guri begira gelditu da, gorri dagoen eta irribarre lotsati bat daukan bitartean. (N.E. 2023/03/15).

Haurrengan **erru** sentimendua, desegokia izan den edo beste batzuk zauritzen dituen ekintza bat egin ondoren sortutako egonezin emozionala bezala azaleratu da. Azken hau, enpatiaren garapenarekin agertu da.

Finlandia pilota gorantz botatzerakoan Errusiari buruan eman dio, eta honen ondorioz azken honek negarrez hasi da. Finlandia berarengana hurbildu da eta barkatu esan eta gero laztanak egin dio. (N.E. 2023/02/07).

6.2 Haurren emozioak bigarren zikloan

6.2.1 Lehenengo mailako emozioak

Etapa honetan lehenengo emozioak modu aurreratuagoan garatzen eta ulertzen dira, ahozko komunikazioa garatzen den bitartean. Azken hau, emozioak izendatzea eta egoera desberdinei zentzua ematea ahalbidetzen du. Gehien errepikatu diren emozioak; poza, tristura, haserrea eta beldurra izan dira. **Poza** askotan ikusi den emozioa izan da, haurrek ekintzak egiterakoan edo beraien artean elkarreraginean agertu den sentsazio

atsegina izan da. Hau, umore onarekin, keinuekin, ahozko adierazpenarekin eta irribarrearekin irudikatu da.

Montenegrok irakaslearen galdera ondo erantzuten lehena izan eta gero, oihu egiten du: toma! eta ukabila gora altxatu egin du. (N.E. 2023/03/10).

Haurren **tristura** hainbat modutan adierazi eta behatu da. Horrela sentitu dira arazo txikiak edo garrantzitsuak esperimentatzerakoan (subjektiboa). Hala nola; negarrarekin agertu da, arreta galtzearekin...

Argentina siesta egin ondoren triste egoten da, ama faltan botatzen duelako. Korroa egin eta zer jan dugun galdetzean, erantzun laburrak eta erdi negarrez errezitatzen ditu. Modu honetan minutu gutxi batzuk egon da, disgustua pasatu zaion arte. (N.E. 2023/01/31).

Haserrea sarritan agertu den emozioa izan da, bidegabeak iruditutako egoerak defendatzeko eta horiei aurre egiteko erabili dena. Haurrek, haserrea zerbait gertatu dela esateko erabili dute. Izan ere, batzuetan sentimendu honi modu oldarkorreetan erantzun diote.

Italia galdetzen du ea janaria bota ahal duen, ni ezetz adierazterakoan, besoak gurutzatzen ditu eta buruarekin ez duela jango adierazten du. (N.E. 2023/03/08).

Haurtzaroan **beldurra** ohiko emozioa da, eta haurrak arriskua sentitzen dutenean agertu da, benetako mehatxu baten ondorioz edo ez. Hau da, nahiz eta haiei arriskuan daudela iruditu (inguruarekiko perspektibarengatik), errealitatean ez dago arriskurik. Portaera normala da, eta ziklo honetan lotura handiagoa izan du iraganeko esperientziekin edo egoera berriekin.

Italia komunera bere anaiarekin joatearen arrazoia galdetzerakoan, bakarrik joatea beldurra ematen zitzaiola azaldu dit: es que un día fui y luego no podía salir, y ahora me da miedo ir sola. (N.E. 2023/03/10).

Antzerkia hastean protagonistaren atzetik, musika ilun batez lagunduta otsoa ikusten da. Ingalaterra izutzen hasten da eta hortik alde egin nahi duela aldarrikatzen du. Aulkian mugitzen eta alboetara begiratzen hasten da, irteera bat bilatu nahian. (N.E. 2023/03/13).

6.2.2 Bigarren mailako emozioak

Etaparen honetan, bigarren mailako emozioak presentzia handiagoa hartzen dute. Esaterako, ahozko komunikazioaren garapenarekin eta ingurunearen interakzio sozial handiagorekin hauek maiz agertzea ahalbidetzen du. Hala nola; lotsa, inbidia eta errua.

Haurrengan **lotsa** arrazoi askorengatik sortu da, adibidez: konfiantza faltagatik, beldurrarengatik... eragin da. Norberak besteen aurrean izandako zaugarritasun-sentimendua bezala irudikatu da.

Egunero bezala, korroa egitean, bakoitzak jan duena kontatzen du. Ingalaterrak, beste batzuetan bezala, lotsa ematen dio, denok begiratzen diogula nabaritzen duelako. Eskuak asko ukitu eta aulkian kulunkatzen den bitartean, bere menua komentatzen digu trabatzen den bitartean. (N.E. 2023/03/10).

Inbidiaren sentimendua, haurrengan beste hurrekin harremanetan hasten direnean sortu da eta gainontzekoak dutena (edo egiten ari direna) alderatzen hasterakoan. Oro har, egoera hauetan “mina” sentitu da besteen adina ez edukitzeagatik.

Jantokiko patioan, Panama bere anai nagusiarekin jolasten dago, azken honek gorantz botatzen dio eta gero berriro hartzen du. Argentina beraiekin dagoela, behin eta berriz eskatzen dio berak ere nahi duela. (N.E. 2023/03/13).

Haurrengan **erru** sentimendua, desegokia izan den edo beste batzuk zauritzen dituen ekintza bat egin ondoren sortutako egonezin emozionala izan da. Azken hau, enpatiaren garapenarekin agertu da.

Suitza Peru lurrera bota dio eta bere erruarengatik negarrez ari dela konturatzen da. Jaikitzen laguntzen dio eta besarkada bat ematen dio, ezer gertatu ez dela eta nahi gabe izan dela argudiatzen dion bitartean. (N.E. 2023/02/22).

6.3 Irakaslearen jarrera haurren emozio desberdinen aurrean

6.3.1 Irakaslearen esku-hartze pasiboa

Haurren artean ematen diren egoera eta gatazka desberdinak, haien barnean emozio desberdinak mugitzea eragin du. Beraz, hauek modu zuzenean kudeatzeko bidean, hezitzaileak jarrera pasiboagoak hartzeko joera hartu du. Haien aurre egin diezaioten eta, horrela, etorkizunean errazago kudea eta uler ditzaten. Hobe izan da edozein egoera gainditu ahal izateko laguntza ematea, egoera hori guk gainditu izan baino.

Frantziari gertatutakoa eragin zaiola konturatzen da, beraz gonbidatzen dio jarduera egitera. Baina ez dio behartzen, bere lekuan eserita egoteko aukera ematen dio, bertan tarte bat lasai egoteko eta prest dagoenean guztiekin elkartzeko. (N.E. 2023/02/02).

Brasili lasai egoteko esaten dio eta egurrezko egiturari ondo erreparatzeko. Ondoren oinarekin egin behar dion keinua irudikatzen dio, berak egoera honetatik bakarrik irten behar delako. (N.E. 2023/02/07).

6.3.2 Irakaslearen esku-hartze aktiboa

Portaera pasibo batek hurrei mesede egiten badie ere, batzuetan rol aktiboago bat hartzea garrantzitsua izan da. Hau da, egoera jakin batzuetan, unea aprobetxatzea sentitzen ari diren emozioari azalpena eta esanahia emanez, haiekin lanean hasteko. Horrek errazago ulertzen eta identifikatzen lagundu die.

Frantziak Argentinari ulertarazten dio triste egotea normala dela. Baina ez dela beti horrela egongo, pasatu egingo zaiola eta gero ama ikusiko duela. (N.E. 2023/01/31).

Georgiari haserre egon arren ezin diola bere ikaskideari jo esaten dio, galdetu egin behar diola eta autoa modu egokian eskatu behar duela. (N.E. 2023/02/02).

6.3.3 Erabilitako baliabide didaktikoak

Emozio desberdinak lantzeko eta ezagutzeko bidean, hezitzaileak baliabide desberdinak erabili ditu.

Mexiko lehenengo zikloan emozioak ezagutzeko eta hauetara hurbilpena egiteko koloretako munstroaren ipuina erabiltzen ari da. Horretarako, hastean behin ipuina irakurtzen da, ondoren dagokion emozioarekin jarduera artistiko bat burutzeko. (N.E. 2023/02/03).

6.4 Nire inpresioak haurren emozio desberdinen aurrean

Nik ikasle bezala aurreko dimentsioetan behatutako eta izango inpresioak erakusten dira. Orokorrean, haurrak emozio bat bizitzen ari diren momentuan horiei izena jartzeko beharra sentitu da. Izan ere, haur bakoitzak emozioak modu ezberdinen bizi izan dituztela ere antzeman da.

Konturatzen naiz emozioak hitzez adieraztea garrantzitsua dela, horrela izen bat ematen zaielako. Modu honetan etorkizunean identifikatzea eta hobeto kudeatzea errazagoa izango delako. (N.E. 2023/01/31).

Konturatzen naiz egoera berdinean haur bakoitzak modu desberdinean erreakzionatzen eta jokatzen dutela. Hala nola, haien bizipenen eta izaeraren arabera. (N.E. 2023/02/03).

Normalean lehenengo erreakzioa haurraren bertaratzea eta arazoa konpontzea da. Baina haurra nola moldatzen den behatzea eta berari lortzen uzten saiatzea hobe dela antzeman da.

Batzuetan hobe dela denbora txarra pasatzea, behar baino laguntza gehiago ematea baino. horrela, beraiek ikasten dute egoerei aurre egiten, eta konturatzen dira ez dela beti heldu bat egongo. (N.E. 2023/02/07).

Emozioak egunero presentzia handia eta garrantzitsua dutela nabari da, beraz Hezkuntza Emozionala momentu guztietan presente egon behar da.

Emozioak egunerokotasunaren une askotan presente egoten dira, beraz momentuan erantzun egokia ematea ezinbestekoa da, aktiboa zein pasiboa. (N.E. 2023/03/13).

7. ONDORIOAK

Erregistratutako emaitzak interpretatu eta aztertu ondoren, lehenengo zikloan nagusi diren emozioak lehenengo mailakoak direla ondorioztatu daiteke. Izan ere, azken hauek egunerokotasunaren momentu askotan presente daude, adibidez: eskolara sartzerakoan, ikaskideekin jolasterakoan, gurasoak bila etortzen direnean... Haurren garapen emozionalaren arabera, emozioak hobeto identifikatzen eta izendatzen hasiko da. Arrazoi berdinarengatik bigarren mailakoak baita agertzen hasiko dira. Non ahozko komunikazioaren garapenak eta besteekiko elkarreraginak honetara bideratuko dien.

Honekin jarraituz eta esan bezala, hizketaren garapenari eta bere buruarekiko kontzientzia handiagoari esker, bigarren zikloan lehenengo eta bigarren mailako emozio batzuk identifikatzeko, izendatzeko eta ulertzeko erraztasun handiago izaten hasten da. Funtsean, bizi daitezkeen eguneroko egoerei zentzua emanez. Esaterako, besteekin eta irakasleekin agertzen diren emozioez hitz egitean, gertatzen ari denari izen bat jartzearekin batera, haien testuinguruari zentzua ematen diete. Baina hau prozesu luzea da, azken finean hauek ulertzen hasi dira, eta konpresio eta kudeaketa egokia egiten lagundu behar diegu.

Aztertutakoa kontuan edukiz, orokorrean irakaslearen rola eta esku hartzea gidariarena eta laguntzailearena izan da. Hau da, gehiegi esku hartu gabe, emozioak kudeatzeko eta ulertzeko moduak beraiek bila ditzaten. Etorkizunean modu eraginkorrean eta seguruan jokatu ahal izateko. Aldi berean, zenbait egoerak momentuko azalpenak behar dituzte gertatzen ari zaiena ulertu ahal izateko. Adibidez: bizitzen ari diren emozioa izendatu eta definitu, testuingurua azaldu zentzua emanez...

Gainera, behatu den moduan, hauek landu ahal izateko hainbat baliabide didaktiko ere erabiltzen dira. Beraz, haurrei emozioak hitzez adieraztea eta hauek lantzeko jarduerak egitea eta momentuak aprobetxatzea funtsezkoa da. Modu honetan etorkizunean gatazkak konpontzeko ez dituzte gabezia emozionalak izango. Honetarako formakuntza egokia izatea eta lan egiten hari garen haurren testuingurua ezagutu behar da. Normalean emozio negatiboak aurkezten direnean hauei aurre egitea kostatzen zaie, ondorioz hau hobetzeko lagundu behar da.

Lan honen helburuak eta prozesuan zehar lortutako inpresioak eta emaitzak kontuan hartuta, emozioek bizitzan eta haurtzaroaren lehen etapan duten garrantzia ondorioztatu daiteke. Halaber, eguneroko egoeretan eta garapen pertsonalean funtsezko zeregina izanez. Hauek lantzeko baliabide eta metodo desberdinen erabilpena funtsezkoa izanez. Betiere ulertuz haur bakoitza desberdina dela eta guztiek ez dutela berdin erreakzionatzen egoera zehatzetan. Izan ere, gure iraganeko esperientziak eta testuinguruak eragina dutelako.

Beraz, azterketa prozesua amaituta, Haur Hezkuntzan Hezkuntza Emozionalean sakontzearen garrantzia nabaria izan da. Honen ondorioz, ikasgelan emozioak nola lantzea eta haien ikaskuntza ikertu dira (Teruel, 2014). Besteak beste, azken honi lehenengo haurtzaroan arreta eskaini behar zaio, etapa honetan eraginkorra izateko aukera handiena dagoelako (López-Cassá, 2011). Horretarako, zentroan horiek lantzeko hainbat jarduera desberdin burutu dira eta hainbat metodo desberdin erabili dira, esaterako: zikloko proiektuak, ipuinak, dinamikak... Halaber, hezkuntzaren helburu nagusia pertsonen garapen integrala bilatzea da, non aspektu kognitiboak eta afektiboak inplikatzeko dira. Tradizionalki aspektu kognitiboak bakarrik lehentasuna izan dute, baina egoera hau aldatzen dago. Hala nola, Hezkuntza Emozionala hezkuntza-berrikuntza bat da, eta egungo hezkuntza formalean behar bezala arduratzen ez diren gizarte-premiei erantzun nahi die (Bisquerra, 2003).

Aipatu bezala, gaur egun Haur Hezkuntzan emozioak lantzen diren arren, hezitzaileek horien inguruko jakin mina eta kontrola izan gabe, ez dira inolako helbururik lortuko. Hala nola, hezitzaileek esparru horretan adituak izan behar dira, haurrei ezagutza zuzenak transmititu ahal izateko. Hau da, irakaslearen ezagutza eta prestakuntza gaiaren inguruan funtsezkoa da. Beraz, adimen emozionalari buruzko hezkuntza-programak ezarri behar dira eskolan, emango duten irakasleak prestatu behar direlako (García, 2021). Izan ere, irakasleen adimen emozionalak ikasleen jokabide disruptiboan tratamenduan duen eragina nabarmentzekoa da (Buitrago et al., 2015).

Gainera, norberaren emozioak ondo kontrolatzeak eta ezagutzeak lagundu egiten digula eguneroko alderdi askotan azpimarratzekoa da. Horrek bizimodu hobea izatera garamatza, non gertatzen zaizkigun eta inguratzen gaituzten gauzak hobeto ulertzen eta kudeatzen ditugun. Esaterako, Bisquerrak eta Pérez (2007) gaitasun emozionalak eskuratzeak pertsonen arteko harreman sozialak erraztuko dituela adierazi dute. Gatazkak konpontzerako orduan laguntzeaz gain, osasun fisiko eta mental egokia eta errendimendu akademikoa hobetzea sustatzen du. Izan ere, Grecok (2010), eta beste adituek burututako emozioen analisisien ikerlanek azken hau erakusten dute. Gure burua hobeto ulertzeko, emozioen munduan murgiltzea ezinbesteko eginkizuna da. Izan ere, pertsona baten egoera emozionala bere ingurunea hautemateko modua mugatzen duelako (Gallardo, 2009).

Funtsean, emozioak egunero eta eguneroko edozein egoeratan agertzen dira. Horregatik, garrantzitsua da espazioak, estimuluak, proiektuak, egoerak... sortzea, azken hauek garatzeko beharrezkoak baitira. Bizitzako lehen urteetatik haurrak emozioz beteriko giroan garatzen dira. Horrela, umea bere emozioak adierazten ikasiko du eta besteenak jasotzen. Baita ere, hauei erantzuten, haien emozioak kontrolatzen saiatuz. Ikaskuntza hori egiteko moduak eta emozionalki garatzeko alderdiak eragina izango dute haren ongizatean eta bizi-kalitatean (Heras et al., 2016).

Hilabete hauetan zehar, haurren adinaren arabera, emozioak nola agertzen eta kanpora azaleratzen diren behatu eta aztertu da. Non, azken honetarako hitzezko komunikazioak zeregin garrantzitsua duen behatu da. Lehenengo sei hilabeteetan haurrak bere oinarrizko emozioak adierazten hasten da: poza, tristura, beldurra, haserrea, interesa, harridura, nazka. Geroago, bigarren mailako emozioak agertuko dira: enpatia, inbidia, lotsa, erruduntasuna, harrotasuna. Horiek agertzeko, kontzientzia eta auto-kontzientzia handiagoa lortu behar da. Azken horiek funtzio sozial garrantzitsua dute, beharrezkoa baita norberaren egoera emozionalaz jabetzea eta, aldi berean, elkarri eragiten diogun beste pertsona zer pentsatzen ari den sumatzea (Muñoz, 2010).

Haurrek hilabete hauetan izan dituzten portaerak aztertu eta gero, inguruneak jokatzeko duen paperaren garrantzia azpimarratu behar da. Besteak beste, honetan elkarri eragitean, sortzen diren estimuluak eta ematen diren harremanak funtsezkoak dira. Emozioak, seinaleak transmititzen dituen gizarte-fenomeno gisa definitzen dira, ingurunea interpretatzeko eta bertan dauden pertsonak ulertzeko balio eta erabiltzen direnak. Azken hauek, kulturaren, arau moralen eta testuinguruaren eragina dute (Mesquita, 2010). Esaterako, Charland-en (2011) arabera, ingurunearekiko elkarreraginean, erregulazio emozionala onartzea funtsezko alderdia da. Honekin lotuta,

familiaren papera kontuan izateko alderdia da, Adimen Emozionalaren trebetasunak lehen haurtzaroan garatzen direlako eta familiaren eta hezitzaileen rolak horretarako funtsezkoak dira. Hala nola, haurtzaroko erreferentziazko lehen eredu sozial emozionalak eta Hezkuntza Emozional egokia emateaz arduratzen direnak baitira (Mora et al., 2022). Aipatutakoaren ondorioz, gurasoek eta familiek beharrezko gaitasuna izan behar dute haurraren ongizatea eta emozioen ikaskuntza bultzatzeko. Hau posible bihurtzeko, hainbat jokabide eta eginkizun ezberdin bete beharko dituzte (Palou, 2004).

Haurren egunerokotasunean egonda, konturatzen zara askok, etxean bizitzen egon daitezkeen egoeragatik, izan dituzten bizipenengatik... alderdi batzuetan gabezia emozionalak dituztela. Azkenean, eskolan ematen dutela ia eguneko ordu guztiak, eta Golemanen arabera (2012), gabezia emozional hauek eskolan konpondu eta landu daitezke, haurrei adimen emozionalaren oinarritzko printzipioak irakatsiz. Helburua giza trebetasunak eskuratzen laguntzea da, hala nola: autoezagutza, autokontrola, enpatia, entzuten jakitea eta besteekin lankidetzan aritzea. Izan ere, gatazkak modu zuzen eta baketsuan konpondu ahal izateko. Horregatik da hain garrantzitsua emozioak pertsonalki zein akademikoki lantzea, horrek etorkizun eta garapen hobea ekarriko duelako.

8. MUGAK ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Azken atal honetan, lana hobetu ahal izan duten parametro desberdinak eta aurkitutako mugak azalduko dira. Besteak beste, behaketa eta ikerketa aurrera eramaterakoan, ez zen ikastetxeko irakaslerik kontsultatu, hau da, azterketa ikaslearen kabuz egin zen, lana bideratzeko aholkurik eskatu gabe. Haien esperientzian eta ikastetxearen eta haurren ezagutzan oinarrituta, alderdi desberdinetan sakontzeko posibilitatea galduz. Adibidez, haurren egoera pertsonala ezagutu, emozio gehien sortzen diren ikastetxeko espazioak ezagutu, zein izaten den haien jarduteko modua... Egunerokotasunari esker, datu horietako asko aurkitu eta behatu badira ere, beste asko galdu egin dira ez kontsultatzeagatik. Ikasleak eguna amaitzean, idatziz jasotzen zuen behatutako informazio guztia, bertako profesionalekin kontrastatu gabe. Esan bezala, gaia eta lana modu prestatuagoan eta eratuagoan egiteko bidean, hezitzaileen biderapena tresna egokia izango zatekeen.

Horretaz gain, nahiz eta GrAL-ren helburua proposamen didaktikorik sortzea ez izan, dinamika edo espazio txiki batzuk sor zitezkeen. Aldi berean hainbat emozio edo emozio zehatzak jokoan jartzeko, horiei buruzko behaketa eta azterketa zabalagoa egiteko helburuarekin. Dinamika eta egoera anitzak behatu eta aztertu arren, lehen

aipatu bezala, irakasleen laguntzarekin gai honekin erlazionatutako egoerak edo jarduerak sor zitezkeen. Adibidez: ipuin edo abesti zehatzak, jolas interaktiboak... Azken finean, Hezkuntza Emozionalarekin eta gaiarekin zerikusia duten alderdiak, emozio anitzak eta erreakzio desberdinak behatzeko.

Prozesuaren alderdi guztian zehar, askatasun dezente eta muga gutxi aurkitu dira. Izan ere, zentroan irakasle bat gehiago izateko aukera egon da, honek inplikatzten dituen jarduera guztiak burutzeko aukerarekin. Hala nola, arratsaldean bigarren zikloan egoterakoan, nahiz eta denbora gehiena 3 urtekoekin igaro, hiru ikasgeletan modu askean mugitzeko aukera zegoen. Hala ere, ordu gehienak lehen zikloan egonda, bigarren etapa modu eratuagoan behatzeko mugatu da. Gainera, bigarren zikloarekin arratsaldeetan bakarrik joateak eragin handia izan du emozioak behatzeko eta aztertzeke orduan. Esaterako, goiz osoa igaro delako (askotan ez dakigu denbora horretan gertatu dena, eta horrek eragina izan dezake arratsaldean duten animo egoeran) eta tartean, siesta egon da edo ez, jantokira joan ahal izan dira edo senide baten etxera bazkaltzera... Beraz, goizean egin ahal izan dutena aztertzeke aukera galtzen da, non printzipioz energia gehiagorekin eta umore desberdinarekin egoten diren.

Azkenik, hilabete hauetan eguraldi ona egon ez izanak prozesuari kalte egin ahal izan dio, aire zabalean jarduera gehiago egitea posiblea izan ez delako. Hala nola, ikastetxearen esparruaren barruan, espazio zabal ugari daude; hainbat ekosistema eta hainbat gune haurrek aire zabalean jolastu ahal izan dezaten. Izan ere, haurrek naturarekin kontaktuan eta harremanetan egotean, ikastetxearen barruan gerta ezin daitezkeen aukera eta egoera berri eta desberdinak sortzea eragiten du. Beraz, baliteke horiek ahalik eta gehien aprobetxatu ezin izanak, eta eragina izatea alderdi desberdinak behatzerako orduan.

9. ERREFERENTZIAK

- 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculumak zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, Vitoria-Gasteiz, 2016ko urtarrilaren 15a, 9. zk., 1-47.
- Atkinson, P., eta Hammersley, M. (1994). Ethnography and participant observation. In Denzin, N.K. eta Lincoln, Y.S. (Ed.). *Handbook of qualitative research* (248-261.or.). Sage Publications.
- Berrocal, E., García, B., Pegalajar, M. eta Sánchez, C.A. (2023). El método de observación como instrumento de análisis. In Berrocal, E., García, B., Pegalajar, M. eta Sánchez, C.A. (Ed.). *Guía docente de Observación Sistemática y Análisis de Contextos para la Innovación y la Mejora*. Universidad de Granada.
- Bisquerra, R. (2003). Educación emocional y competencias básicas para la vida. *Revista de investigación Educativa*, 21(1), 7-43. <https://revistas.um.es/rie/article/view/99071>
- Bisquerra, R. eta Pérez, N. (2007). Competencias emocionales. *Educación XX1: Revista de la Facultad de Educación*, 10(1), 61-82. <https://doi.org/10.5944/educxx1.1.10.297>
- Bisquerra, R. (2010). *Educación emocional y bienestar*. Praxis.
- Bisquerra, R. (2012). ¿Cómo educar las emociones? La inteligencia emocional en la infancia y la adolescencia. Hospital Sant Joan de Déu.
- Bisquerra, R., Pérez, J. C. eta García, E. (2015). *Inteligencia emocional en educación*. Síntesis.
- Boix, C. (2007). *Educar para ser feliz. Una propuesta de educación emocional*. Ceac.
- Brackett, M.A., Rivers, S.E. eta Savoley, P. (2011). Emotional Intelligence: Implications for Personal, Social, Academic, and Workplace Success. *Social and Personality Psychology Compass* 5(1), 88 - 103. <https://doi.org/10.1111/j.1751-9004.2010.00334.x>
- Buitrago, R.E., Herrera, L. eta Perandones, T. M. (2015). Psicología Positiva e Inteligencia Emocional en Educación. *DEDiCA*, (8), 139-153. <https://doi.org/10.30827/dreh.v0i8.6915>
- Cejudo, J. eta López, M. L. (2017). Importancia de la inteligencia emocional en la práctica docente: un estudio con maestros. *Psicología Educativa*, 23(1), 29-36. <https://doi.org/10.1016/j.pse.2016.11.001>
- Charland, L. C. (2011). Moral undertow and the passions: Two challenges for contemporary emotion regulation. *Emotion Review*, 3(1), 83-91. <http://dx.doi.org/10.1177/1754073910380967>
- Deigh, J. (2010). Concepts of emotions in modern philosophy and psychology. In Goldie, P. (Ed.), *The Oxford Handbook of Philosophy of Emotion* (17-

- Dobrin, N. eta Kállay, E. (2013). The Investigation or the Short-Term Effects of a Primary Prevention Program Targeting the Development of Emotional and Social Competencies in Preschoolers. *Cognition, Brain, Behavior. An interdisciplinary journal*, 17(1), 15-34.
- Domingas, M., Angulo, L. eta Guerra, V.M. (2017). Características de la expresión emocional en los escolares primarios y su manejo desde la perspectiva del personal docente-educativo. *Revista Electrónica Educare*, 21(1), 1-16.
<https://doi.org/10.15359/ree.21-1.19>
- Dueñas, M. L. (2002). Importancia de la inteligencia emocional: un nuevo reto para la orientación educativa. *Educación XX1: Revista de la Facultad de Educación*, 5(1), 77- 96. <https://doi.org/10.5944/educxx1.5.1.384>
- Escolar, M. C., De la Torre, T., Huelmo, J. eta Palmero, C. (2017). Educación emocional en los profesores de infantil: aspecto clave en el desempeño docente. *Contextos Educativos. Revista De Educación*, (20), 113-125.
<https://doi.org/10.18172/con.2994>
- Flick, U. (2004): *Introducción a la investigación cualitativa*. Morata.
- Freshwater, D. eta Stickley, T. (2004). The heart of the art: emotional intelligence in nurse education. *Nursing Inquiry*, 11(2), 91-98.
<https://doi.org/10.1111/j.1440-1800.2004.00198.x>
- Fridja, N. (2008). The psychologist's point of view. In Lewis, M., Haviland-Jones, J. eta Feldman, L. (Ed.), *Handbook of emotions* (68-87.or.). The Guilford Press.
- Gallardo, P. (2009). El desarrollo emocional en la educación primaria (6-12 años). *Cuestiones pedagógicas: Revista de ciencias de la educación*, (18), 143-159.
<https://revistascientificas.us.es/index.php/Cuestiones-Pedagogicas/article/view/10044>
- Garaigordobil, M. (2018). La educación emocional en la infancia y la adolescencia. *Revista del consejo escolar del estado. Participación educativa*, 5(8), 107-127. <http://hdl.handle.net/11162/178711>
- García, B. (2021). Competencia emocional en maestros de educación infantil y primaria: fuentes de variabilidad y sugerencias de mejora. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 24(2), 1-15.
<https://doi.org/10.6018/reifop.450111>
- García, E., García, B., Jiménez, M.P., Martín, M.D. eta Domínguez, F.J. (2010). *Psicología de la emoción*. Editorial Universitaria Ramón Areces.
- Goleman, D. (1998). *La práctica de la inteligencia emocional*. Kairós.
- Goleman, D. (2012). *Inteligencia emocional*. Kairós.
- Gómez, O. eta Calleja, N. (2016). Regulación emocional: definición, red nomológica y medición. *Revista Mexicana De Investigación En Psicología*, 8(1), 96-117.

<https://www.revistamexicanadeinvestigacionenpsicologia.com/index.php/RMIP/article/view/215>

- González, T., Colás, M.P. eta López, I. (1990). La metodología de observación como proceso de intervención, formación y toma de decisiones. *RIE*, 8(16), 281-284. <http://hdl.handle.net/10201/95350>
- Guedes, S. M. eta Álvaro, J. L. (2010). Naturaleza y cultura en el estudio de las emociones. *Revista Española De Sociología*, (13), 31-47. <https://recyt.fecyt.es/index.php/res/article/view/65164>
- Haidt, J. (2003). The moral emotions. In Davidson, R. J., Scherer, K. R. eta Goldsmith, H. H. (Ed.), *Handbook of affective sciences* (852-870.or.). Oxford University Press.
- Heras, D., Cepa, A. eta Lara, F. (2016). Desarrollo emocional en la infancia un estudio sobre las competencias emocionales de niños y niñas. *International Journal of Developmental and Educational Psychology Revista INFAD de psicología*, 1(1), 67-74. <http://hdl.handle.net/10259/5307>
- Londoño, O.L. (2012). La etnografía desde las narrativas digitales. *Itinerario educativo*, 26(59), 143-166. <https://doi.org/10.21500/01212753.1465>
- López-Cassá, E. (2005). La educación emocional en la educación infantil. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 19(3), 153-167. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=27411927009>
- López-Cassá, E. (2007). *Educación emocional*. Wolters Kluwer.
- López-Cassá, E. (2011). Bases didácticas de la educación emocional: un enfoque práctico. In Bisquerra, R. (Ed.), *Educación emocional. Propuesta para padres y educadores* (71-88.or.). Desclée de Brouwer.
- Maldonado, L. F. eta Fonseca, A. D. (2011). *Universidad y gestión de conocimiento para el desarrollo regional*. Universidad Central.
- Mesquita, B. (2010). Emoting: A contextualized process. In Mesquita, B., Feldman, L. eta Smith, E. (Ed.), *The mind in context* (83-104.or.). Guilford Press.
- Mora, N., Martínez-Otero, V., Santander, S. eta Gaeta, M. L. (2022). Inteligencia emocional en la formación del profesorado de educación infantil y primaria. *Perspectiva Educativa*, 61(1), 53-77. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=8300878>
- Muñoz, A. (2010). *Psicología del desarrollo en la etapa de educación infantil*. Editorial Pirámide.
- Palomera, R. eta Yépez, A. (2016). Educación responsable. Un programa para fomentar el desarrollo emocional, social y de la creatividad en toda la comunidad educativa. *Revista Padres y Maestros*, (368), 24-29. <https://doi.org/10.14422/pym.i368.y2016.004>
- Palou, S. (2004). *Sentir y crecer. El crecimiento emocional en la infancia. Propuestas educativas*. Graó.

- Proyecto Educativo de Centro (PEC) (2023). Colegio Inmaculada Concepción, 15-02-2023.
- Puertas, P., Zurita, F., Chacón, R., Castro, M., Ramírez, I. eta González, G. (2020). La inteligencia emocional en el ámbito educativo: un meta-análisis. *Anales de psicología*, 36(1), 84-91. <https://doi.org/10.6018/analesps.345901>
- Pujadas, J. J. (1992). *El método biográfico*. CIS.
- Schleicher, A. (2019). *Helping our Youngest to Learn and Grow: Policies for Early Learning*. OECD Publishing.
- Soler, J.L., Aparicio, L. eta Díaz, O. (2016). *Inteligencia Emocional y Bienestar II*. Ediciones Universidad de San Jorge.
- Spindler, G. eta Spindler, L. (1992). Cultural process and ethnography: An anthropological perspective. In LeCompte, M.D., Millroy, W.L. eta Preissle, J. (Ed.). *The Handbook of Qualitative Research in Education* (53-91.or.). Nueva York: Academic.
- Teruel, P. (2014). Por qué y para qué la Educación Emocional. *Cuadernos de pedagogía*, (442), 62- 64. <http://hdl.handle.net/11162/101581>
- Vicente, G., Ureña, N., Gómez, M. eta Carrillo, J. (2010). La danza en el ámbito educativo. *Retos: nuevas tendencias en educación física, deporte y recreación*, (17), 42-45. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=345732283009>
- Vilora, C. (2005). La educación emocional en edades tempranas y el interés de su aplicación en la escuela: programas de educación emocional, nuevo reto en la formación de profesores. *Tendencias Pedagógicas* 10, 107-123. <http://hdl.handle.net/10486/4739>
- Vygotski, L. (1979). *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*. Editorial Grijalbo.

10. ERANSKINAK

Lehenengo Eranskina:

- Aretoa:




- Lehenengo gela:



- **Bigarren gela:**



- **Hirugarren gela:**



Bigarren Eranskina:

- **Psikomotrizitate gela:**



- **Gela Multisensoriala:**



- **Aterpea:**



- Berdeguneak:

